

# Noaia!!



Bertako sagardotegiak,  
jada zabalik



Nora Izagirre, moda diseinatzailea  
“Lan hau ez da gehiegi baloratzen”



# Tapak eta aurkibideak, prest

Agur esan diegu 2005 urteari.  
Noana! guztiak bildu eta 2005eko  
tapak eta aurkibidearekin  
koadernatzeko garaia da.  
Bazkide zarenenok, azala eta aurkibidea  
doan jaso ditzakezue  
NOANA! Kultur Elkarteko egoitzan.



Tapak eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek.  
Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte  
tapak edo azalarengatik, eta 1,20 euro, aurkibidearengatik.  
Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue.  
Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar  
dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## Txirrikikutik !!

**X**VII. mendeko Aginagako Mapil baserria ezaguna da bertan Gipuzkoako ontziola jarduera handiena eta garrantzitsuenaren izan zuelako. Garai hartan erregeak izendatuta "Usurbilgo Erret Ontziola" deitzen zen. Mapil, Saroe Jauregiko Ignacio de Soroa kapitainaren jabegoa izan zen. Bertan merkataritzarako bergantinak, fragatak eta Espainiaren itsaso armadarako ontziak egiten ziren, bereziki kaskoak. Erabiltzen zen egur gehiena Irisasikoa zen. Ondoren diketik, karroez lagundurik, uretara botatzen ziren Pasaiara eramateko eta bertan arboladura jartzen zieten. Aipatzekoak dira bertan egin ziren 1.200 tonako Santa Ana eta San Pedro ontziak. XIX. mende erdialdera arte Mapilek bere jarduera mantentzen jarraitu zuen. Urte mordo hutsik egon ondoren, gaur egun Mapil eraberritua dago eta ez dauka argazkian agertzen denarekin itxura gehiegirik.

Zalao Arnaiz Ibaguren



1940, Mapil baserria, Aginaga

Jabetza: Kutxa Fototeka

Iturria: "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburua

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda Berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

NORA IZAGIRRE MODA DISEINATZAILEA 6. OR.

ION KORTA, NORVEGIATIK BUELTAN 8. OR.

Arkitektura teknika ikasi du Ionek eta karrera amaitzeko proiektua Norvegiako Bergen hirian osatu du.



ATZERAPENAK HARANE FUTBOL ZELAIAN 10. OR.

18/98 AUZIARI BURUZKO HITZALDIA 11. OR.

BI ERAKUSKETA SUTEGIN 12. OR.

Urtarrilaren 20a bitartean, Susana Martinen ikasleek egindako kamisetak ikusteko aukera izango dugu Sutegiko erakusketa aretoan.



AGENDA, AZKEN ORDUKO DEIALDIAK... 17. OR.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**Zutabea** !!

JOSE PIÑAS

**Munduko Gizarte Foroa**

**H**ilabete honetan hasiko da Munduko Gizarte Foroaren seigarren edizioa. Aurrekoen aldean, hiru hiriburutan egingo da eta data ezberdinetan: Bamakon, Caracasen eta Karachin.

Munduko Gizarte Foroa 2001ean abiatu zen. Neoliberal sistemari aurre egiten dioten giza borroka koordinatu eta eztabaida sustatzeko bilgune gisa.

Tradizioz ezkeriar izan diren alderdien gainbehera garaia dira, behin boterea eskuratu ondoren kale egin dutelako, bereziki, mundu justuago baten saiakeran. Gainera, akats larria egiten ari dira, maila politikoa maila instituzionalera murriztuz. Hori horrela den garai hauetan, neoliberal ideiak zabalduz doaz eta horien haritik iritsi dira gerrak, txikizio ekologikoak, lan-baldintzen kaskartzea, kanpo zorra, hiriko zein nekazar guneetako miseria.

Gauzak horrela, giza taldeok argi dugu eraldaketa nagusiak gizarte partehartzaile, antolatu eta mobilizatu baten eskutik iritsiko direla. Honek, botere maila handitu nahi duten alderdi politikoetatik aldentzen gaitu. OMC, FMI, CM, G-8 eta antzekoei aurre egin dieten giza mugimendu antiglobalizatzaile berriak azaldu dira. Nekazari, indigena, emakume, ekologista eta hainbat sindikatu indartu egin dira eta giza-talde handietan bilakatu dira.

Horiek guztiek ondo ulertu dute neoliberalismoari ezin zaiola era sektorialean aurre egin, pobrezia globalari eta herrien elkartzaren alde borrokatzeko arlo laboralak, ekonomikoak, ekologikoak, kulturalak uztartu behar direla. Munduko Gizarte Foroak borroka integral hau biltzen asmatu du eta hortik duen pluraltasun kutsua.

Munduko Gizarte Foroa, halaber, metodologia horizontalak eta partehartzaileak sustatzen nabarmendu da. Demokrazia berregin nahian, ahotsik gabekoen ahotsa bilakatu nahian: tailerrak eta seminarioak dira ehundaka erakunderen bilgune, non euren esperientziak elkartrukatu, borroka artikulatu eta neoliberalismoari aurre egiteko alternatibak eztabaidatzen diren.

Munduko Gizarte Foroak erronka handiak ditu aurretik: globaletik lokalera eta alderantziz doazen bideak uztartu, adibidez. Badira zubi lana egiten ari diren foro lokalak. Euskal Herrian EHGF delakoak lehen esperientzia izan zuen 2003an, ondo legoke egitasmo hura berreskuratzea.

Azkenik, Munduko Gizarte Foroa prozesu dinamiko gisa ulertu beharko genuke, non urrats errealei lehentasuna ematen zaien. Historiaren armiarma sare handian jende xeheak bere ekarpenak egin ditzan.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

**Ika-mika** !!**Aupa Erreala baina zaindu Zubieta**

**Z**ubietar gehienak, betidanik izan dugu Erreala gure klub kutuna, beste hainbat gipuzkoarrek bezala. Oraingoan berriz, kezka handia sortu du bere joerak, baino are gehiago gure administrazio nagusiak, hau da Donostiako Udalak eta Foru Aldundiak, hartu duten jarrera. Biak jarri dira lehiaketa batean, ea nork eskaintzen dion altxorrik hoberena, Errealaren aurreko administrazio kontseiluak egindako kudeaketaren ondorioak estaltzeko. Jadanik hauteskunde kanpaina hasi da.

Hau horrela onartzea, bere presupuestotik, eztabaidagarria izan liteke baino garbi esanez gero, erabakia onartu liteke, nahiz eta ados ez egon. Beste gauza bat da Zubietako garapena, Udalak zuzenean Errealaren eta eraikuntzako enpresen esku uztea.

Orain dela gutxi, beste artikulua batean esaten nuen bezala, Zubietako garapena aurrez ikertutako plan baten barruan egon behar luke. Plan horretan ze garapen maila bete behar den, zer epetan burutuko den, eta Zubietarron iritzia kontutan hartua izatea eskatzen genuen. Egunkari bidez jakin dugu

Zubietako Herri Batzarrarekin, Donostiako udalak bilerak izango dituela. Alde berean Lasarteko udalarekin komisioa osatu dutela Zubietako garapena lantzeko. Bailarako komisioa osatzea ondo ikusiko genuke, bertan egonez gero Zubietako Herri Batzarra, Usurbilgo udalarekin batera, eta ez, beti bezala dena erabaki ondoren guri azaltzea.

Zubietako garapena bere osotasunean egin beharra dago, eta ez zatika eta lur jabegoaren nor den arabera. Nahiz eta Errealak lurrak soberan izan, alboko batzuek ere erosi zituen. Astiazaran jaunak, kargua utzi aurretik saldu zizkien eraikuntzako enpresa batzuei. Orain Donostiako udala prest dago Plan Orokorren aldaketa egitea, lur hauen kalifikazioa aldatzeko, eta bertan ahal diren etxe gehienak egiteko. Onartu ezina da, lurraren jabegoa zein den ikusita erabakitzea salmenta libreko etxeak izango diren edo babez ofizialekoak. Edo akaso hori izango al da Errealeko instalakuntzen mugan dauden lur guztiek izango duten kalifikazio mota, edo unitate berdinean sartuko al dira? Zer dentsitate onartuko da lur hauetan?

Horrela ezin da Zubietako garapenerako planarik egin. Etxeak edo beste edozein eraikuntza, ezin dira perretxikoak bezala egin, jabe goan baita. Zubietako Herri Batzarrak aurkeztu zituen bere proposamenak Plan Orokorren Aurrerapenari. Bertan agertzen zen gure nahia. Garapena kaskotik hasi, eta olio tanta bezala zabalduz, hipodromo aldera joatera. Beti bezala erantzun ere ez zaio egin. Hau dena ikusita, hiritarren partaidetza sarritan aipatzeak ez du ezer balio. Benetako borondaterik balego, Zubietako Barrutiaren edo Distrituaren sormena bultzatuko litzake, eta ez aitzakia pila bilatu denbora pasa dadin ezer egin gabe.

Zubietarrok harro egon behar genuke, Errealaren instalakuntzak geurean izateaz. Errealak Zubietako garapenean izan behar du bere pisua, baino ez Zubietarren ordezkariak baino gehiago. Erreala ere Zubietako arazoetan parte izatea nahi dugu, ez Zubietaren etsaia.

Imanol Azpiroz (Zubietako alkatea)

Zer diyo? !!

Axier Otegi, Lurdes Galvez

## Proposamen interesgarri batekin gatoz

**K**aixo herritar agurgarriok. Zuengana zuzentzen gara, proposamen interesgarri batekin. Proposamen hau bideratu nahi duen talde bat gara.

Gogoan duzue zer nolako giroa izaten zen Usurbilgo kaleetan?

Inauteriak, urte zaharra, herriko festak,... Garai haietan Usurbilgo gazteak antolatzen eta parte hartzen zuten edozein festetan, aldi berean ahaztu ezina bihurtuaz.

Azken finean ulertarazi nahi duguna hau da:

Herritar guztiak, zaharrak eta gazteak, behar direla herri dinamiko bat izateko. Horrela denen partaidetzak herri giro alaia sortzen duelako. Denok dakigun bezala festak ez direla bere kabuz sortzen, norbait behar izaten da atzetik hori bultzatzeko.

Hori aldatzeko aurkeztu nahi dizuegu proposamena hau da:

Talde bat sortzea, ekintza artistiko ezberdinak aurrera eramateko. Urtean zehar egin nahi diren ekintzak talde berak erabakiko ditu, beti herriko jendeaz osatua eta herritarrei eskaintzeko.

Eta galdetuko zarete, nola eraman dezakegu praktikara?

Lau lan talde osatuaz.

**Gidoi taldea:** Ideia eta proiektuak jorratuko duen taldea da. Beraien zeregina, erabaki diren ekintzen garapena, norabidea eta beharrak aztertuko dituztenak. Azken finean ekintzari forma emango dion taldea da. Partaideak 18 urtetik gorakoak izango lirateke.

**Espresio taldea:** Talde honek espresio korporala, monologoak, elkarriketak, dantza, mimika eta abar luze bat, landuko lituzke. Beti ere egin nahi den ekintzari zuzendua. Partaideen adina 9 urtetik gorakoak.

**Anbientazio taldea:** talde honek arlo ezberdinak landuko lituzke, inguruaren egokitzea, pertsonaiei forma eman, jostunak, makilajeak eta ile-apaindegien lanarekin izango litzateke. Partaideak 16 urtetik gorakoak.

**Ikus-entzunezko taldea:** Talde honen egin beharra proiektuak dokumentatzea eta irudien, soinu eta argien bidez lanak indartu eta osatzea da. Partaideak 18 urtetik gorakoak.

### Talde hauen funtzionamendua

Talde bakoitzean gaian adituak diren usurbildar jendeak bideratuko lituzke. Taldeak osatzen duten pertsonen eraba-

kiko dute noiz, non eta nola bideratu.

Talde bakoitzak bere funtzionamendu sistema antolatuko du, beti ere, idearen ari nagusia mantenduaz eta beste taldeekin harremana galdu gabe. Horrela talde guztien artean, talde orokor bat osatuko genuke.

Dena prest dago! Orain zure txanda da. Proiektu honen partaide izan nahi baduzu edo kezka bat baduzu, telefono hauetara deitu dezakezu: Axier 657 77 94 24 eta Lurdes 639 36 74 82 arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Aurten proiektua berria denez, eta bere funtzionamendua hobeto ikusteko, erabaki genuen aurtengo Santixabeleko maskota erretzea izango dela helburu nagusia.

Martxan jartzeko bi gauza geratzen zaizkigu taldeak osatzea eta ideia izatea lanean jartzeko.

Gonbidatzen zaituztegu Aitzaga, Txirristra, Benta, Bordatxo, Irrati, Zendoia, Ardi-beltz, Antxeta eta liburutegian jarriko ditugun koadernoetan zuen ideiak plasmatzea gero guk proposamen horiekin lan egiteko.

Besterik gabe eta intentzio txarrik gabe zuen esku dago hau martxan jartzea.

Apuntatzeko epea **urtarrilaren 31 arte** izango da. Anima zaitetz! Eskerrik asko.

I n t e r n e t - z e r m u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1



# Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186



ZUM T  
JETEX

100% SANGRE

**MENUTX K L E**

• G e z t u z i e t e r a s k o t u l .  
• n h s t l .  
• Z u m t k l e t k n f m m a x  
• r e k m e n k l l r e n s k n .  
• n r e n n .  
• h t r e x o m e n z e e  
• S e r k e n u s s e r k e n k n t  
m u z k e t l .

K r e t e z z m  
E T S N K 23,5 m

# Nora Izagirre, moda diseinatzailea

## “Nire txikitako ametsa bete da”

**M**oda diseinatzailea dugu Nora, Bartzelonan ikasia eta Parisko etxe ospetsuetan aritua. Negozio propioa ireki berri du Lasarte-Orian; norberak bere bidea irekitzea zaila dela dioten arren, horren aldeko apustua egin du.

NOAUA! Moda diseinatzaile izateko ikasketak egin dituzula jakin dugu, kanpoan gainera. Non ikasi zenuen?

Nora Izagirre. Lehenenik, Arte Ederrak ikasi nituen Bilbon, eta hori amaitu nuenean Bartzelonara joan nintzen “Diseño de la moda” ikasketak egitera. “Escuela de artes y técnicas de la moda” izeneko eskolan aritu nintzen. Bartzelonara joan nintzen, helbide batzuek eskuetan, eta hoberena iruditu zitzaidanera gerturatu nintzen. Arte Ederrak ikasita nituenenez, hirugarren mailan sartu nintzen zuzenean, eta bi urtetan amaitu nituen moda diseinuko ikasketak.

### NORA IZAGIRRE

“Parisko lehen mailako etxeetan aritu naiz lanean”

Praktikak leku garrantzitsuetan egin nituen eta hona etortzerakoan lana hemen bilatu beharrean Parisen bilatzea erabaki nuen. Hermesen lortu nituen praktikak hiru hilabeterako, baina bost hilabetera luzatu zen. Perfekziozko etxe bat da, izen handikoa, eta egia esan asko ikasi nuen. Lolita Lempicka etxean ere egon nintzen. Hauek guztiak Parisko lehenengo mailako etxeak dira, izugarria da bertan lana egitea. Oso gustura egon



ARTE EDERRAK IKASI ZITUEN BILBON ETA HORI AMAITZEAN BARTZELONARA JOAN ETA MODA IKASTEARI EGIN ZION.

nintzen bertan diseinatzen.

### “Paris oso hiri gogorra da”

N. Parisen izan al zenuen arazorik hizkuntzarekin, bertako ohiturekin?

N. I. Hizkuntza ezagutzen nuen, eta alde horretatik arazorik ez nuen izan. Bartzelonan bezalaxe, hasieran moldatu behar izan nuen, baina gero oso gustura egon nintzen. Jende ezaguna neukan bertan, Bilbon nirekin ikasitako lagun min bat eta Erasmusekin nirekin joan zen mutil bat, azken hau kasualitatez Parisko kaleetan aurkitu nuen, gainera. Era berean, Paris oso hiri gogorra da. Batzuetan lana besterik ez nuela egiten iruditzen zitzaidan, arratsaldeko zazpitan lanetik irten eta jada denda guztiak itxita zeuden. Baina denborarekin asko gozatu nuen.

N. Hemen horrelako ikasketarik

egiteko aukerarik ba al da?

N. I. Hemen badago eskolaren bat, Bilbon ere bai, baina agian ez zidaten hainbestearainoko konfidantza ematen hemengo eskola horiek. Eta kanpora ateratzea ere deigarria iruditu zitzaidan.

### Modaren hiriburua

N. Etxean zer esan zuten kanpora joateko erabakia hartu zenuenean?

N.I. Ezagutzen naute, eta badakite gustuko dudala. Lehenago ere Londresen izan nintzen hilabete batzuk Bilbora joan aurretik. Gainera, Bilbon ikasten ari nintzela, Parisa joan nintzen Erasmus bidez. Eta justu Paristik etortzean erabaki nuen moda munduan sartzea; izan ere, Paris modaren hiriburuetako bat dela jakina da. Handik bueltan, Bartzelonara joan nintzen ikastera.

# “Lan hau ez da gehiegi baloratzen”

N. Nondik datorkizu modarako grina?

N. I. Txikitatik datorkit. Beti gustatu izan zait arroparen mundua. Amets bat zen niretzat. Ikasketetan pentsatzean, uste nuen zer bait serioan pentsatu behar nuela, eta modarena hobbie bat izan zitekeela, besterik ez. Baina Arte Ederretako azken urtean “nik hau egin behar dut” pentsatu nuen. Orain agian ez naiz hain kontziente, baina amets bat egi bihurtu zaidala uste dut.

## NORA IZAGIRRE

“Bidea zuk bakarrik ireki nahi baduzu zaila dago, merkatua zaila dagoelako”

N. Multinazionalak hor daude. Horien aurrean, erraza al da diseinatzailer izatea?

N. I. Bidea zuk bakarrik ireki nahi baduzu zaila dago, merkatua zaila dagoelako, hain zuzen. Eta multinazionalen aurrean norberak jakin behar du zein produktu eskaini dezakeen besteengandik ezberdina izango dena eta hori ustiari, horretan jarri indarra.

## Neurrira egindako arropa

N. Oraintxe bertan, zertan oinarritzen da zure lana?

N. I. Neurrira doan arropa ari naiz

egiten. Ezkontzetarako, adibidez, bai gonbidatuentzat eta baita ezkongaienezat ere. Jende askok ez du joan nahi denok imaginatzen dugun bezala, baina agian ez dakite zehatz-mehatz zer nahi duten ere. Eta horretan ari naiz ni, pertsonaren erosotasuna bilatzen. Saiatzen naiz pertsona eroso sentitzea, eta ez moztortuta. Bezeroa niregana etortzen denean, arropa zertarako izango den esaten dit lehenik eta behin, arrazoren bat badago behintzat. Nolakoa den ezagutzen saiatzen naiz, estiloa eta janzkera, eta horren arabera tela eta diseinuaren proposamen sorta bat egiten joaten naiz. Azkenean, bion artean erabakitzen dugu egokiena.

## “Beti egongo da lana”

N. Nola ikusten duzu aukeratu duzun ofizioaren etorkizuna?

N. I. Beti egongo da lana, nik uste, arroparen merkatua handia baita. Hori bai, zer nolako kalitatea izango duen... Multinazional batean lan egiten baduzu, sormena ez da lantzen, ia makina bat bezala funtzionatzen duzu. Uste dut norberak bilatu behar duela bere bidea, baina zaila dago, egia esan. Lan hau ez da gehiegi baloratzen. Gaur egun arropa oso merkea dago, oso polita gainera, eta ez dugu arrazoirik aurkitzen gehiago gastatzeko.



NORA, LASARTE-ORIAN  
ZABALDU DUEN ESTUDIOAN.

## Estudio bat zabaldu du Lasarte-Orian

NOAUA! Ze asmo dituzu aurrera begira?

Nora Izagirre. Abuztua arte Donostiako enpresa batean aritu naiz lanean, eta nire negozio propioaren alde apustu egiteagatik utzi nuen. Horrekin ari naiz oraintxe, estudio bat jarri dut Lasarten eta hor nabil egunero bezeroekin lanean, trajeak egiten... Elastiko serigrafiatu serie bat egin berri dut, baita ere; hauek saltzen ari naiz, eta gustuko izan direnez, gehiago ari naiz egiten orain. Gustatuko litzaidake nire proiektua finkatzea eta horretaz bizitzea.

ITURGINTZA

J SE  
NGU EN

TEL 3 3 72





Ion Korta gazteak Norvegiako Bergen hirian amaitu ditu arkitektura ikasketak

## “Oso garestia da Norvegiako bizimodua”

**A**rkitektura teknikoa egin du Ionek eta karrera amaitzeko proiektua egitera Norvegiara joan da, Bergenera, Erasmus programaren bidez hain zuzen. Bertan zubi bat diseinatu dute berak eta Beasaingo lagun batek. Proiektuan notarik altuena lortu eta ea irabazle modura aukeratzen duten zain daude.

**NOAUA! Zergatik erabaki zenuen azken txanpa kanpoan egitea?**

**Ion Korta.** Ingelesa ikasteko alde batetik, eta etxetik kanpo esperientzia bat izateko, bestetik. Lagun batekin joan nintzen, gainera. Bestalde garantia bat zen, proiektua sei hilabetetan bukatzeko aukera ematen zuen Erasmusekin kanpora joateak, eta hemen geratu diren askok urte osoa behar izan dute. Azkenean sei hilabete baino lehenago bukatu dugu, hala ere. Egunean zortzi ordu sartuta, hori bai!

**N. Oso ezberdina al da hango bizi-modua hemengoarekin alderatuta?**

**I. K. Bai,** oso ezberdina da. Oso garestia da dena eta jendea oso hotza, ez dira oso atseginak. Gizalegetsuak bai, baina ez oso atseginak. Gauetan, adibidez, diskoteketan sartzeko 12 bat euro ordaindu behar dira, eta hori edaririk gabe. Hamabietatik ordubietara bakarrik egoten dira zabalik, gainera. Gero etxetara joaten dira, baina festara etxeetara joateko lagunak eduki behar dira.

### ION KORTA

“Arratsaldeko bostetarako dena itxita dago.  
Lau t’erdietarako afaltzen da”

Eguraldi oso txarra egiten zuen; gu geunden lekuan, Norvegiako hego mendebaldeko kostan, urtean 300 egunetan egiten du euria. Azkeneko hilabeteetan hotz handia eta elurra egin zigun Bergenen, eta iparraldera igotzean, Ipar Lurmuturrera, oraindik hotz handiagoa zegoen bertan, hogeita bost gradu zero



NOTARIK ALTUENA LORTU DU ION KORTAK BERE PROIEKTUAREKIN.

azpitik. Lauetarako ilundu egiten zuen, eta iparraldean ez zegoen argirik ia egun osoan. Egurdiko hamabietan jada ilun zegoen.

**N. Izan al duzu hizkuntzarekin edo bertako ohiturekin arazorik?**

**I. K.** Hara joan aurretik esan ziguten han norvegiera eta ingelesa hemen euskara eta gaztelera bezala zirela, baina iristean konturatu ginen ingelesez jakin arren ez dutela erabiltzen. Berrogei urtetik gorakoek, adibidez, ez dakite ingelesez. Guk, gainera, lau hitz besterik ez ditugu ikasi norvegieraz. Ohiturei dagokienez, dena ezberdina da. Arratsaldeko bostetarako dena itxita dago, eta lau t’erdietarako afaltzen da. Bazkaria, goizeko hamaika t’erdietan eta ogi xerra bat gazta xafla batekin izaten da han. Eta ez zegoen jatetxerik, dena oso amerikarra da: McDonalds eta horrelakoz beteta dago. Denek jaten dute hori, gainera; jende edadetua ikusten zen Coca Cola esku batean eta hanburgesa bestean.

**N. Karrera amaituta, zer egiteko asmoa duzu orain?**

**I. K.** Master bat egin nahi dut aurrena, eta ahal bada lan egin. Baina aurren txirriadularitzan aritu nahi dut gogoz. Bestetik, Ezkaraira bost urterako lanera joatea proposatu didate. Baina bost

urterako joatea gogorra da. Tolosako udaletxean ere izena eman dut, ea aparejadore modura lan ematen didaten. Norvegiar ere lana eskaini ziguten, baina han ez dut bizi nahi. Ez dakit, lana soberan dagoela diote, beraz...

### Flow, etorkizuneko zubia

**S**ei hilabete zituzten proiektua Segiteko Erasmus bidez, eta egunean zortzi ordu sartuta, lau hilabeteetan bukatu dute, uste baino lehen. Zubi baten maketa egin dute eta lana amaitu dutenean beste proiektu askorekin batera aurkeztu dute. Orain zain daude ea beraiena aukeratzen duten irabazle izateko. “Flow” du izena eta irudian duzue.






## Norvegiako hainbat txoko ezagutzeko astia izan du



BERGENEKO KALE FAMATUAREN  
PAREAN EGITEN ZUTEN LAN  
IONEK ETA BERE LAGUNAK.



IPAR LURMUTURREAN,  
EGUERDIKO HAMABIETAN,  
ILUN-ILUN ZEGOEN.



PREKESTOLENEN 600  
METROTAKO AMILDEGIA DAGO,  
"PULPITU" BEZALA EZAGUNA.

## Danbor hotsak Udarregin

**S**an Sebastian egunean, urtarri-  
laren 20an, jai-eguna izango da  
Udarregi ikastolan. Baina bezperan,  
ohi bezala, Haur Hezkuntzakoek  
danborrada eskainiko dute Agerial-  
deko pilotalekuan, 15:45ean.

Beranduxeago, Lehen Hezkuntza-  
koek ere gauza bera egingo dute baina  
Udarregiko patioan. Lerrook  
irakurtzerakoan, akaso pasa da San  
Sebastian eguna. Dena den, polita  
izaten da ikasleek eskaintzen duten  
ikuskizuna.

### Donostiara joateko tren-zerbitzu berezia

EuskoTrenek tren zerbitzu berezia  
eskainiko du urtarrilaren 19tik 20ra.  
Kostaldeko trenaren ordutegi berezia

hauxe izango da. Donostia-Amara eta  
Zumaia artean, irteerak Donostiatik:  
22:47/ 23:47 / 00:47 / 1:47 / 2:47 /  
3:47 / 4:47 / 5:17.

Zumaia eta Donostia-Amara artean,  
irteerak Usurbildik 23:54 / 00:54/ 1:54  
/ 2:54 / 3:54 / 4:54 / 5:54.

### San Sebastian egunean, trenak ordu erdiro

Ostiralean, urtarrilaren 20an,  
Donostiako haurren danborradara  
joan nahi duten guztien bidaia erraz-  
tu asmoz, Zumaia eta Donostia  
arteko zerbitzua ordu erdiz behinekoa  
izango da, 9:30etik arratsaldeko  
20:00etara bitartean.

Informazio gehiago, tren geltokian,  
[www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) web orrialdean edo  
902 543210 telefono zenbakian.



IAZ UDARREGIKO IKASLEEK  
ESKAINITAKO DANBOR SAIOA.

## Aginagako Ariztitxo pilotalekuko urbanizazioa, konponketa premian

**2**003ko urtarrilaren 5ean inauguratu zuten Aginagako pilotalekua. Hiru urte bete berri dira eta gezurra badirudi ere, pilotaleku ondoko urbanizazioa altxa egin beharra dago. 39.430 euro beharko dira konponketa-lanak egiteko.

2002ko otsailean egindako bilkuran, Usurbilgo Udalak Antzibar S.A. enpresari esleitu zizkion Ariztitxo pilotaleku-ko urbanizazioen lanak.

2003ko ekainaren 2an, ordea, Antzibar S.A. enpresak egindako obran hainbat akats antzeman ziren: plazako adokin zoladura hondatuta zegoen eta hainbat tokitan altxatzen hasia zen. Hala, 2004ko urtarrilaren 21ean, Usurbilgo Udalak aipatutako akatsak konpontzeko errekerimendua egin zion Antzibar S.A. enpresari.

### 39.430 euroko aurrekontua

Antzemandako akatsen ardurak argitzeko eta hauek konpontzeko era egokiena topatzeko, hainbat bilera burutu dira aipatutako enpresa, obra zuzendaritza eta Usurbilgo Udalaren artean.

Elkarrizketen ondorioz, iazko apirilean obra zuzendaritzak proposamen



**OBRA ZUZENDARITZAREN ESANETAN, AKATSEN ARDURA ANTZIBAR SA ENPRESA ETA USURBILGO UDALAREN ARTEAN BANATU BEHAR DA.**

zehatza egin zuen. Proposamen hori gauzatzeko 39.430,38 euroko aurrekontua aurkeztu zuen.

### Laster hasiko dira konponketa-lanak

Akatsei dagokienez, berriz, obra zuzendaritzak Antzibar S.A. enpresaren eta Usurbilgo Udalaren artean banatu ditu ardurak.

Iazko irailean, Antzibar S.A. enpresak

idatzi bat helarazi zuen, antzemandako akatsak konpontzeko obra zuzendaritzak egindako proposamena onartuz eta konponketa gastuen erdia bereganatzeko borondatea onartuz.

Gauzak horrela, pilotalekuko konponketa bideratu ahal izateko hitzarmena sinatu da Udala eta Antzibar S.A.ren artean.

Arazorik ez bada, laster hasiko dira konponketa-lanak.

## Harane futbol zelaiaren berritze-lanak, atzeratuta

**H**arane futbol zelaia eraberitzeko obrak berriro atzeratu dira. Lehengo urteko abenduan, futbol zelaiaren lur mugimenduak egiteko lehiaketa antolatu zuen Udalak baina hutsik gelditu da azkenean. Urtarrilaren 9ko batzordean proposamen bakarra jaso zela ikusi zen, Dunboa S.A. enpresak aurkeztutakoa, baina Udalaren aurrekontua gainditzen zuen proposamen horrek.

Udal arduradunak gaia aztertzen egon dira eta prozedura negoziatua martxan

jartzea erabaki dute. Horrela, aurreko aurrekontu lizitazio berarekin akordio batera iritsi nahi dute enpresaren batekin, obrekin lehenbailehen hasteko.

### Otsailean, lur mugimenduak

Kontuak kontu, zelaia berritzeko lanak gelditu jarraitzen dute.

Okerrik ez bada, eta gauzak bide onetik badoaz, otsailaren bukaeran hasiko dira Haraneko lur mugimenduak. Bien bitartean, Realak Zubietan dituen instalazioetan jokatzen jarraituko dute gure futbol taldeek.



**HARANE BERRITU BITARTEAN, ZUBIETAN JOKATZEN ARI DIRA USURBIL FT TALDEKOAK.**

# Urtarrilaren 26an, 18/98 auziaren inguruko hitzaldia Sutegin

**U**surbilen duela bi hilabete osatu zen 18/98+ lan-taldea. Ordutik hona, hainbat ekimen abiarazi dituzte. Orain, auzipetuek sufritzen ari diren jazarpenaren berri eman nahi da hitzaldi baten bidez. Aitor Ibero eta Xabier Alegria izango dira hizlariak. Hitzordua, urtarrilaren 26an, Sutegin.

Badira bi hilabete 18/98+ taldea lanean ari dena Usurbilen. Zehazki, asteazkenero 19:30ean biltzen dira Aitzagan eta bilera hauek irekiak dira.

Elkarlanean hainbat ekimen burutu dira: informazioaren arloa landu, elkarretaratzeak antolatu, material salmenta eta diru bilketa...

Kontu korronte bat ere zabaldu dute, laguntza eman nahi dutenen ekarpenak biltzeko xedez:

3035 0149 4014 9002 7825.

Izan ere, auzipetu bakoitza ahalegin ekonomiko handia egitera behartuta dago: hilean, gutxi gorabehera, 7.600 eurokoa. Ez hori bakarrik. Astean hiruzpala egun Madrilan pasa behar, lana eta etxeokak utzita, presiopean.

Ez ahaztu auzipetuen artean bi herritar daudela: Olatz Altuna (Zumalabe Fundazioaren auziagatik) eta Joan Mari Torrealdei (Egunkaria auziagatik).

## Urtarrilaren 30a arte atzeratu dute epaiketa

Duela egun batzuk, 18/98 auziko epaiketa hogeitaz egunetara etetea erabaki zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Auzitegi horretako 3. salak kaleratutako bost orriko autoak zioen «babes gabezia zantzurik» egon ez dadin eta defentsako abokatuak 75/89 dilijentzietako agiriak aztertzeko beta izan dezaten erabaki zuela auzi saioa hilaren 30 arte atzeratzea.



AZARDAN, 18/98+ LAN-TALDEA OSATZEKO SUTEGIN EGIN ZEN BILKURAREN IRUDIA.

## Xabier Alegria eta Aitor Ibero abokatuaren hitzaldia

**Noiz:** urtarrilak 26, osteguna

**Ordua:** arratsaldeko 20:00etan

**Non:** Sutegiko auditorioan

**Hizlariak:** Xabier Alegria, Aitor Ibero

**Hitzaldia gidatuko duten kazetariak:**

Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta

## Udala eta herriko taldeen arteko bilera

**D**agoeneko bi hilabete pasa dira Sutegiko eraikina ireki zenetik. 2006 urterako talde guztiek antolatzen dituzten ekintzak koordinatu nahi ditu Udalak, ekintzen gutxi gorabeherako egutegia osatzeko. Bestalde, Sutegiko auditorioko oinarritzko elementuen erabilera irakasteko beharra ikusten da (mikrofonoa, argiak...), ekintzak modu errazagoan antolatzeko.

Horretarako, oinarritzko ikastaro bat antolatzea egoki ikusi du Udalak. Hori dela eta, bilera baterako deia egin zien Usurbilgo talde eta elkarte ezberdinei. Urtarrilaren 18an egin zen bilera hori.

## Eraikuntza sektorean dagoen prekarietatea salatu dute sindikatuek

**D**agoeneko hiru langile zendu dira Euskal Herrian. Lasarte-Orian gertatu zen azken ezbeharra. 47 urteko F.J.R. langilea margolari lanean zebilen Geltoki kaleko obra batean. Ia 13 metrotik erori eta hil egin zen. Sindikatuek eraikuntza sektorean dagoen behin-behinekotasuna eta azpikontratazioa salatu dute. Hala nola, gogor gaitzetsi dute ugazaben eta Administrazioaren «utzikeria». Lan istripuen «gaitzaren» aurkako neurri eraginkorrik ez hartzea leporatu diete Buruntzaldeko ELA, LAB, ESK eta EILASek. USO, CCOO eta UGTk ere, gogor salatu dute gertaera.



URTARRILAREN 16AN, LASARTEN EGINDAKO BILKURA.

## Sindikatuen elkarretaratzea

Gertaera salatzeke, sindikatu hauek elkarretaratzea egin zuten urtarrilaren 16an, ezbeharra eman zen tokian.



## Bi erakusketa Sutegin

**S**utegiko erakusketa aretoak herriko hainbat artisten lanak bilduko ditu datozen egunetan. Urtarrilaren 20a bitartean, Susana Martinen ikasleek egindako kamisetak ikusteko aukera izango dugu. Urtarrilaren 23an, aldiz, Joxean Gorgojoren pintura erakusketa zabalduko da Sutegin.

Artisten artean artistak Susana Martinen ikasleak. Kamisetak margotzen trebeak dira oso. Egun hauetan Sutegin dagoen erakusketara hurbildu besterik ez duzue.

Erakusketako kamisetak ikusi eta gero, ez dirudi 4tik 13 urte bitarteko ikasleen marrazkien aurrean gaudenik. Oihal gaineko pintura teknika erabilia, marrazki ederrekin osatu dituzte kamisetak.

Diseinuak ere, ikasleek beraiek egin dituzte. Aurrez zirriborro bat egin eta hori oinarritzat harturik osatu dituzte Sutegin ikusgai dauden kamisetak. Guztira 23 lan bildu dira Susana Martinek koordinatu duen erakusketa honetan. Ez hori bakarrik. Ikasle bakoitzak egindako bozetoak ere ikusgai ipini dira.

Gogoan izan, urtarrilaren 20a bitartean, 16:30etik 19:30era, Susana Martinen Aterpe tailerreko pintura ikasleen lanak ikusgai Sutegin.



SUSANA MARTINEN IKASLEEK  
EGINDAKO LANAK SUTEGIN DIRA.

### Joxean Gorgojoren pintura erakusketa

Joxean Gorgojo 17 urterekin etorri zen Usurbila bizitzera. Txikitatik gustatu izan zaio margotzea. Bere kabuz hasi zen margotzen baina, gerora, Karlos Zabala eta Amaia Kasasola irakasle izan zituen. Batez ere, paisaiak margotzen ditu. Sutegin zabalduko duen erakusketa osatzeko, bere lan aipagarrienak aukeratu ditu.

### Urtarrilaren 23tik 27ra

Erakusketa ugari jarri ditu Gorgojok: Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean, Donostiako Lugaritz Kultur Etxean, hainbat taberna eta dendetan...

Urtarrilaren 23tik 27ra bitartean, berak egindako pintura-lanak ikusgai egongo dira Sutegiko erakusketa aretoan, arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

## Internet ikastaroa KzGunean

**U**rtarrilaren 23tik otsailaren 3a bitartean, nabigatzen ikasteko ikastaro berri bat emango dute, 16:00etatik 18:00etara (gaztelaniaz).

Bestetik, teknologia berrien oinarriko ezagupideak egiaztatzeko balio du IT txartela delakoak. Ziurtagiria eskuratzeko hurrengo azterketa: urtarrilak 20 ostirala, 16:00etatik 18:00etara, KzGunean.



## Odol emaileen loteria zenbakia, saritua

**A**benduaren 22ko loteria zozketan, odol emaileek banatutako zenbakia izan zen saritua. Kobratzeko Lan Kide Aurrezkira, Laboralera, joan behar da. Boletoko 6 euro egokitzten da kobratzea. Odol emaileek eskerrak eman nahi dizkiete boletoak erosiz lagundu dieten guztiei.

Bestetik, urtarrilaren 2an 42 kidek eman zuten odola, eta beste herritar batek Donostian. Hurrengo saioa martxoaren 6an izango da.

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak  
EGUZKITZA, 4 USURBIL • 943 370 344

# Txoooootx!

## Sagardozaleak biltzeko prest dira gure inguruko sagardotegiak

**U**dazkenean, txoko askotan ikusi ahal izan da sagar biltzen ari zenik. Batzuk, antzina bezala, etxean sagardoa egiteko; besteak, ordea, sagardotegiei saltzeko. Baina oraingoa, sagardo berria dastatzeko garaia da. Sagardozaleak behintzat, gogo biziz daude.

Urtero legez, Sanmiel inguruan hasi zen sagar biltzea lana, lehen aleak heldu eta lurrera erortzean. Sagardogileek egin dute beren lana. Orain, sagardozaleen txanda da. Usurbilen zazpi sagardotegi ditugu aukeran.

### 2003koaren parekoa

Adituek diotenez, 2003ko sagardoaren oso antzekoa izango da aurtengoa. Udan izan den lehortea tarteko, aurtengo sagardoa egiteko sagarraren %80 kanpotik ekarri behar izan dute.



SAGARDOGILEEK EGIN DUTE BEREN LANA.

ORAIN, SAGARDOZALEON TXANDA DA.

## Bertako sagardotegiak, jada zabalik

### Araeta, Zubieta

Astelehen gaua, astearte egun osoa eta asteazken gaua sagardotegia itxita  
943 36 20 49 / 943 36 66 04  
[www.araeta.com](http://www.araeta.com)

### Saizar, Kalezar

Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita  
943 362 228  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

### Aginaga, Aginaga

Astelehenean itxita  
943 36 67 10 / 943 37 06 68

### Astiazaran, Zubieta

Igandean itxita  
943 36 12 29

### Urdaira, Aginaga

Igande gauean itxita  
943 37 26 91

### Aialde Berri, Santuenea

Igandean itxita  
943 36 50 31 / 670 02 77 31

### Arratzain, Aginaga

Urtarrilaren 27an irekiko da (egunero)  
943 36 66 63



## Lagunak non jaso?

### KAROBI

Zubietako nekazaritza-etxea.  
943 360 635.

### BARAZAR

Zubietako nekazaritza-etxea.  
943 363 358.

### ZALDUA

Zubietako hotela.  
943 366 620.

### IBARROLA

Kalezargo nekazaritza-etxea.  
943 363 007.

### ZABALEA

San Estebango nekazaritza-etxea.  
630 562 588.

### ATXEGA

Atxegaldeko jauregia.  
943 371 150.

# Kutxa iluna edo kamara estenoipeika

## Historia:

Kutxa iluna, argazki kameraren aintzindaria izan zen. Kamera hau greziarren garaian (orain dela 3000 urte) oso baliagarri izan zen. Berarekin marrazki errealistak egiten zituzten garai hartako artistek. Aristotelesekin eklipseak ikusteko erabiltzen zuen (k.a. 384-322).

Arabiarrak izan ziren hurrena kamera hau erabiltzen (Erdi Aroan) eta Leonardo Da Vincik marrazkiak egiteko erabili ohi zuen (1452-1519).

1550. urtean lehenengo lentea kutxa ilunean atxikitu zuten.

XIX. mende hasieran kutxa iluna argazki kamera bihurtu zen, lehenengo material fotosentikorak (argiari sentikorrak direnak) asmatu zirelako.

## Ezaugarriak:

Kutxa ilunak alde bateko erdian zulo txiki bat du non zulo hortatik argi izpiak sartzen diren eta beste aldeko tipula paperean agertzen den irudia. Irudi hori alderantziz agertzen da.

Kutxa hermetikoki itxia dago (argi izpirik ezin da sartu), bestela, argazkia ez litzateke ongi aterako. Argazki guztiak



KAMERA HAU GREZIARRREN GARAIAN OSO

BALIOGARRI IZAN ZEN.

txuri-beltzean ateratzen dira. Argazkiak ateratzeko argazki papera sartu behar da kutxaren barrenean. Argazki papera zuloaren parean jarri behar da zutik bestela irudia ez litzateke aterako. Tipula papera tapatu egin behar zaio argia ez sartzeko (lehen esan dugun bezala kutxa hermetikoa delako) eta zulo txikian lente bat jartzen zaio. Argazkia atera aurretik zulo txikia tapatu egin behar da atera nahi dugun irudia gaizki atera ez dadin, ezin baitzaio argi izpirik sartu. Estalkia argazkia atera nahi den momentuan bakarrik kendu behar zaio.

D.B.H. 2ko argazkigintza tailerra

## Teknopolisen denboraldi berria aurkeztu zen Elhuyarren

**E**lhuyarren egoitzan aurkeztu zen Teknopolis telebista saioaren denboraldi berria. Datorren igandetik aurrera, ETBn emango dute Teknopolisen zortzigarren denboraldia.

Ekitaldian, Iñaki Telletxea Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Industria Garapeneko sailburuordeak, Bingen Zupiria, ETBko zuzendariak eta Itziar

Nogueras, Elhuyar Fundazioko zuzendariak hartu zuten parte. Horrez gainera, besteak beste, Aitziber Agirre saioaren aurkezlea, eta programaren babesleen ordezkariak izan ziren Elhuyarren egoitzan: Hezkuntza Saila, Mondragon Unibertsitatea, Fagor, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ingelectric Team, Policlínica Gipuzkoa eta Eusko Tren.



URTARRILAREN 17AN EGIN ZEN TEKNOPOLIS

SAIOAREN AURKEZPENA ELHUYARREN.



## Usurbil-Leitza pilota norgehiagoka

**A**urreko bi edizioetan lehenengo kanporaketan lehiaketatik kanpo gelditu ondoren, aurtengoan lehen norgehiagoka gainditzea izango du helburu Andatzpe Peña Pagola pilota elkarteak; Euskal Herri osoko taldeek parte hartzen duten Berria txapelketan. Kadete, jubenil eta senior mailako bikoteek jokatzen duten txapelketa honetako lehen kanporaketa larunbatean, hilaren 21ean, jokatuko dute Altzako pilotalekuan Aurrera Leitza taldearen aurka.

Usurbildarrak eta leitzarrak izango dira aurrez aurre larunbat arratsaldean Altzako pilotalekuan, Berria txapelketako lehenengo kanporaketan. Aurreko bi edizioetan kale egin ondoren, aurtengo honetan lehenengo kanporaketa gainditu nahi dute Andatzpe Peña Pagolakoe, eta asmo horrekin joango dira Altza aldera.

Apustuak tarteko balira dirua parean aterako litzatekeela esan daiteke. Halaxe dio, behintzat, Enrike Huizi herriko pilota elkarteak ordezkaririk: *"Kanporaketa berdindua dagoela dirudi. Hasiera batean beraiek kadete mailan bikote indartsuagoa dute, eta guk nagusi indartsuagoak. Jubenil mailan, berriz, bi bikoteak antzekoak dira. Emozio dextentea egon daiteke".*

Kadete mailan Imanol eta Eñaut Esnaola izango dira herriko ordezkaririk. Jubenil mailan eskuetatik gaizki dabilen Iñigo Irastorzaren ordez Jon Ezeiza hernaniarrak jokatuko du Jon Esnal edo Iker Zinkunegirekin batera eta nagusien



PARTIDAK LARUNBATEAN JOKATUKO DIRA, 16:30EAN, ALTZAN.

mailan, Enrike Huizi eta Asier Arruti bikoteak. Kontuan hartu behar da txapelketa honetan pilota taldekoak ez diren bi pilotarik jokatu dezaketela hala nahi izanez gero, eta herriko taldean hermaniar batek jokatuko du jubenil mailan.

### Talde izaera sustatu nahi da

Kanporaketa gainditzeko bi partida irabaztea ez da nahikoa izango. Hasierako joko sistema berarekin jarraituko dute eta talde bakoitzeko hiru bikoteek lortzen duten tanto kopurua hartuko da kontuan. Sistema honen bidez talde izaera sustatu nahi da banakako ikuskizunaren gainetik. Iaz, adibidez, herriko taldeak 2 partida galdu zituen Aginagako pilotalekuan Gernikako Arkupe taldearen aurka, baina tanteean 55 eta 52 galdu zutelako

gelditu ziren lehiaketatik kanpo.

### Diruz, larri

Bestalde, aurtan ez da Berria txapelketako neurketarik jokatuko Aginagako pilotalekuan. Usurbil ez baita antolaketa lanetan sartu. Enrike Huizik esandakoaren arabera, ondo aztertu ondoren hartu dute erabakia: *"Diruz larri gabiltza, gure txapelketa nagusia egiteko ere juxtu. Horregatik hasi gara "laguntzaille" kanpainarekin eta beste diru iturri batzuk ere aztertzen ari gara. Horrez gain, aurreko bi edizioetan oso jende gutxi joan da Aginagako pilotalekura, neguan eguraldiak ez baitu askorik laguntzen. Gure ahaleginak beste txapelketa batera bideratu nahi ditugu, udaberrian hasi eta Santixabeletan amaitzen den gazte eta nagusi mailako XXXIV txapelketara".*

### Usurbil FT-Ikasberri, larunbatean Zubietan

**B**igarren jubenil mailako futbol taldeak pasa den asteburuan ekin zion iguera faseari eta Martutenetik puntu batekin itzuli ziren etxera. Garaipena oso gertu izan bazuten ere, 2-2 berdindu zuen Urtzi Izagirre eta Iker Agirrezabalagak zuzendutako taldeak Martutene B taldearen aurka eta Eneko Golderos eta Mikel Irazusta izan ziren golegileak. Bigarren neurketa larunbat arratsaldean, urtarrilaren 21ean, jokatuko dute Zubietako belar artifizialeko zelaian Azpeitiako Ikasberri taldearen aurka.

### Kadete nesken partida Oiardo kiroldegian

**F**ederazio torneoak jokatzen ari den kadete mailako nesken eskubaloia taldea izango da asteburu honetan Oiardo kiroldegian jokatuko duen bakarra. Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatuzetik hurbil gelditu ondoren Federazio torneoan aurkaririk ez dutela erakusten ari dira Nerea Aguadok zuzendutako jokalariek. Orain arte jokatutako 4 partidak irabazi dituzte eta sailkapenaren buruan dira. Larunbatean hirugarren postuan kokatuta dagoen Ehariak taldea izango dute aurrez aurre.

### Asteburuko pilota partidak

#### Urtarrilak 21, larunbata

Gaska Trinketea, 13:30ean  
Gipuzkoako Txapelketa Eskuz Banaka  
Andatzpe Pagola/ Hernani 3  
Andatzpe Pagola/ Oiarpe (Oiartzun)  
Andatzpe Pagola/ Behar Zana (Villabona)

Altzan, 16:30tan, Berria Txapelketa  
Aurrera Leitza/ Andatzpe Pagola

#### Usurbilen, 16:00etan

Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa.  
Denera 6 partida. Hiru, benjamin mailakoak; beste hiru, alebin mailakoak.

#### Urtarrilak 22, igandea

Usurbilen, 12:30ean, Udaberri Txapelketa, eskuz binaka nagusiak 2. maila.  
Andatzpe Peña Pagola/ Lagunak (Elgoibar).

## Aholkua

## Edredoi eskandinaviarrak

**M**antak bezain goxoak baina askoz ere arinagoak izaki, ohean egoteko erosoago dira. Edredoi arruntaren aldean eskandinaviarrak abantaila asko ditu: arinagoa, diseinu soilekoa eta oso aldakorra izateaz gainera, erresistentzia handia agertzen duenez, urte askotan erabil daiteke, behar bestetan alda daitekeen zorroaren barnean baliatzen delako.

- Betegarri eskandinaviarra aukeratzeko unean errepara iezaiozu haren ahalmen isolatzaileari, batik bat.

- Gramajeak edredoiak nolako berotasuna emango digun adierazten du (zenbat eta gramaje handiagoa orduan eta

beroago), kalitatearekin zerikusirik ez du. Kalefakzio oneko etxean lo egiten duen edo hozkila ez den pertsonarentzat aski da gramaje txikiko edredoiak.

- Erosi aurretik, uki ezazu edredoiak: leuna izan behar du, mugikorra, aise etorriko da aurreko egoerara eta ez du gogorrunerik (lumaren zaina) izango.

## Mantenua eta garbiketa

- Harrotu eta egurastu edredoi eskandinaviarra egunero, hartutako hezetasuna suntsitzeko eta betegarria bere toki egokira ekartzeko.

- Kendu orbanak, betegarria blaituz: isola ezazu zikindutako aldea, betegarria jaitsez. Estekatu alderdi zikin hori goma-



txo batez eta, horrela dagoela, garbi ezazu.

- Garbiketa handietan ibil zaitez kontuz, edredoiaren egitura ez desegiteko eta betegarria ez kaltetzeko. Irakur itzazu fabrikatzailearen argibideak.

## Eguneko goardiako farmaziak

**Urtarrilak 19, osteguna**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 20, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 21 larunbata**  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 22, igandea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 23, astelehena**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 24, asteartea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 25, asteazkena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 26, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 27, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 28 larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 29, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urtarrilak 30, astelehena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,  
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

## Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T)  
14:35\*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00 / 12:45(T) /  
13:45\* / 18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 /  
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /  
21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /  
21:00 (T)

\* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia  
Donostia-Zarautz

| Donostia | Urbil | Usurbil | Zarautz |
|----------|-------|---------|---------|
| 07.40    |       | 08.05   | 08.25   |
| 08.00    |       | 08.25** |         |
| 08.00    | 08.20 | 08.25   | 08.45   |
| 08.40    | 09.05 | 09.25   |         |
| 09.00    | 09.20 | 09.30   |         |
| 09.00    | 09.20 | 09.25   | 09.45   |
| 09.40    |       | 10.05   | 10.25   |
| 10.00    | 10.20 | 10.25   | 10.45   |
| 10.40    |       | 11.05   | 11.25   |
| 11.00    | 11.20 | 11.25   | 11.45   |
| 11.40    |       | 12.05   | 12.25   |
| 12.00    | 12.20 | 12.25** |         |
| 12.00    | 12.20 | 12.25   | 12.45   |
| 12.40    |       | 13.05   | 13.25   |
| 13.00    | 13.20 | 13.30   |         |
| 13.00    | 13.20 | 13.25   | 13.45 # |
| 13.40    |       | 14.05   | 14.25   |
| 14.00    | 14.20 | 14.30** |         |
| 14.00    | 14.20 | 14.25   | 14.45   |
| 14.40    |       | 15.05   | 15.25   |
| 15.00    | 15.20 | 15.30   |         |

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaro

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan \*\*Aiaraino

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

Autobus ordutegia  
Zarautz-Donostia

| Zarautz | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---------|---------|-------|----------|
| 06.45   | 07.05   |       | 07.30    |
| 06.45   | 07.05   | 07.10 | 07.30    |
| 07.15   | 07.35   |       | 08.00    |
| 07.45   | 08.05   | 08.30 |          |
| 07.45   | 08.05   | 08.15 | 08.40    |
| 08.15   | 08.35   |       | 09.00    |
| 08.45   | 09.05   | 09.30 |          |
| 08.45   | 09.05   | 09.15 | 09.40    |
|         | 09.30   | 09.35 | 10.00*   |
| 09.45   | 10.05   |       | 10.30    |
| 09.45   | 10.05   | 10.15 | 10.40    |
|         | 10.30   | 10.35 | 11.00    |
| 10.45   | 11.05   |       | 11.30    |
| 10.45   | 11.05   | 11.15 | 11.40    |
| 11.45   | 12.05   |       | 12.30    |
| 11.45   | 12.05   | 12.15 | 12.40    |
| 12.45   | 13.05   |       | 13.30    |
| 12.45   | 13.05   | 13.15 | 13.40    |
|         | 13.30   | 13.35 | 13.55*   |
| 13.45   | 14.05   |       | 14.30    |
| 13.45   | 14.05   | 14.15 | 14.40    |

\*Aiatic dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

## EuskoTren ordutegia

| Donostia | Usurbil | Zarautz | Zarautz | Usurbil | Donostia |
|----------|---------|---------|---------|---------|----------|
| 05.47*   | 06.03*  | 06.20*  | 06.08*  | 06.24*  | 06.39*   |
| 06.17*   | 06.33*  | 06.50*  | 06.38*  | 06.54*  | 07.09*   |
| 06.47*   | 07.03*  | 07.20*  | 07.08*  | 07.24*  | 07.39*   |
| 07.17    | 07.33   | 07.50   | 07.38*  | 07.54*  | 08.09*   |
| 07.47    | 08.03   | 08.20   | 08.08   | 08.24   | 08.39    |
| 08.17*   | 08.33*  | 08.50*  | 08.38*  | 08.54*  | 09.09*   |
| 08.47    | 09.03   | 09.20   | 09.08   | 09.24   | 09.39    |
| 09.20#   | -       | 09:47#  | 10.08   | 10.24   | 10.39    |
| 09.47    | 10:03   | 10.20   | 11.08   | 11.24   | 11.39    |
| 10.47    | 11.03   | 11.22   | 11.22#  | -       | 11.47#   |
| 11.47    | 12.03   | 12.20   | 12.08   | 12.24   | 12.39    |
| 12.17*   | 12.33*  | 12.50*  | 12.38*  | 12.54*  | 13.09*   |
| 12.47    | 13.03   | 13.20   | 13.08   | 13.24   | 13.39    |
| 13.17*   | 13.33*  | 13.50*  | 13.38*  | 13.54*  | 14.09    |
| 13.47    | 14.03   | 14.20   | 14.08   | 14.24   | 14.39    |
| 14.17*   | 14.33*  | 14.50*  | 14.38*  | 14.54*  | 15.09*   |
| 14.47    | 15.03   | 15.20   | 15.08   | 15.24   | 15.39    |
| 15.17*   | 15.33*  | 15.50*  | 15.38*  | 15.54*  | 16.09*   |
| 15.47    | 16.03   | 16.20   | 16.08   | 16.24   | 16.39    |
| 16.17*   | 16.33*  | 16.50*  | 16.38*  | 16.54*  | 17.09*   |
| 16.47    | 17.03   | 17.20   | 17.08   | 17.24   | 17.39    |
| 17.17*   | 17.33*  | 17.50*  | 17.38*  | 17.54*  | 18.09*   |
| 17.47    | 18.03   | 18.20   | 18.08   | 18.24   | 18.39    |
| 18.17*   | 18.33*  | 18.50*  | 18.38*  | 18.54*  | 19.09*   |
| 18.47    | 19.03   | 19.20   | 19.08   | 19.24   | 19.39    |
| 19.17*   | 19.33*  | 19.50*  | 19.38*  | 19.54*  | 20.09*   |
| 19.47    | 20.03   | 20.20   | 20.08   | 20.24   | 20.39    |
| 20.21#   | -       | 20.48#  | 21.08   | 21.24   | 21.39    |
| 20.47    | 21.03   | 21.20   | 22.07#  | -       | 22.32#   |
| 21.47    | 22.03   | 22.20   | 22.38   | 22.54   | 23.09    |

\* Astegunetan bakarrik

# Ez da Usurbilen geratzen

Harremanetarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

## Agenda !!

### Urtarrilak 23/ otsailak 3

- Interneten nabigatzen ikasteko ikastaroa KzGunean, 16.00/18.00 (gaztelaniaz).

### Urtarrilak 27, ostirala

- Etxerat!-en elkarretaratzea pilotaleku atzean. Iluntzeko 20:00etan.

### Urtarrilak 26, osteguna

- 18/98 auzia hizpide Sutegin, 20:00etan. Hizlariak: Xabier Alegria, Aitor Ibero.

### Urtarrilak 31, asteartea

- Naturaren Ildotik", Alejandro Tapia pintorearen erakusketa ikusteko azken eguna, Tolosako Aranburu Jauregian.

### Otsailak 1, asteazkena

- San Markos mankomunitateko ibilgailua pasako da Usurbildik.

## Musikaren txokoa !!



### Kolore ezberdinak Sorkunen "Duna" diskoan

**D**una Dizena darama Sorkun kantariaren bakarkako bigarren lan luzeak. Bide berriak eta eremu ezberdinak ukitzen ditu lan berri honekin. Elektronikatik abiatutako kantu berrien bidez, rocka, bossanova, soula edo drum&bass bezalako soinua aurki daitezke lan berrian murgilduz gero. Onna izeneko lehen diskoarekin alderatuz, ezber-



dina da Duna, zabalagoa eta irekiagoa, ilunagoa akaso. Talde sendoa bildu du oraingo honetan Sorkunek, eta musikalki bikain aritzeaz gain, soinu ezberdinak arakatzuz eta zertzelada berriez bustirik dator disko hau.

Distortsioak alde batera utzi eta soinu minimalistagoekin eta melodia landuekin jolasten du. Musika tresna berriek kolore ezberdinak ematen dizkiote "Duna"-ri. Disko anitza eta, era berean, erreza entzuteko.

### Urtarrilaren 20an, KzGunean, IT txartela eskuratzeko azterketa

**T**eknologien Oinarrizko Ezagupideak egiaztatzeko balio du IT txartela delakoak. Ziurtagiri honek adierazten du pertsona batek informatikan eta Interneten duen ezagupen maila. Izen-emateko orri bat bakarrik bete behar da eta azterketa doanekoa da.

Ziurtagiriak: Internet Oinarrizkoa, Internet Aurreratua, Testuen Tratamendua, Aurkezpenak, Kalkulu Orriak, Datu Baseak...

Ziurtagiria eskuratzeko hurrengo data: Urtarrilak 20 ostirala, 16:00etatik 18:00etara, Usurbilgo KzGunean.

## Egin kontu !!

### Capoeira ikastaroa antolatu nahi da Santueneko kultur elkarte berrian

**C**apoeira ikastaroa jarri nahi da martxan Santueneko lokal berrian. Brasilgo irakasle bat prest dago ikastaroa emateko. Beraz, taldea osatuko balitz berehala jarriko litzateke martxan. Interesa duenak deitu dezala 943 371 535 edo 943 365 031 telefono zenbakietara.



DANTZA ETA BORROKA  
UZTARTZEN DITU CAPOEIRAK.

ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

**M N  
CENILL**  
k r - n t u r i  
t l l u k  
r x t t z - l u k  
n t u r - l u k r h r  
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL  
i l e a p a i n d e g i  
m i s t o a  
943361951

**BORDATXO**  
*edaritegia*  
PINTXO BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42



## ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / [www.upriding.com](http://www.upriding.com) webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduen zaintze-

ko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.

- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Astelehenetik ostiralera goizeko 7tik, 12ra. Interesatuak deitu 618700479.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabilta. 645403905.
- Astelehenetik ostiralera, goizeko 10:00etatik 12:00etara, pertsona heldu bat zaintzeko norbait behar dugu. Interesatuak deitu: 600415541.
- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lan-poltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.
- Astean behin, bizpahiru ordutako etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 605 707 643.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 8 hilabetetako kanela koloreko cocker bat galdu zaigu Txikiardi inguruan. Aurkitu baduzu deitu 651703021
- Graduatuak betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!rako ekarri mesedez.
- Txakurkumeak oparitzen ditugu. Ama artzai txakurra alemana eta aita ezezaguna baina azkarra. 943366872 (Ander eta Joxe Mari)
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Doan edo merke antzean emateko prest bazau, gustura hartuko nuke. Tel: 676 37 48 12.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!



## Zorionak Unax eta Malen!

Urtarrilaren 17an bi urte bete zituzten etxeko bikiek. Horrela jarraitu txintxo-txintxo eta ondo pasa eguna gu guztion partez.

## Telefono interesgarriak !!

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak .....943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia.....943 36 20 13
- Udarregi Ikastola.....943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte.....943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia .....943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A. ....943 46 46 22

- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

## Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea urtarrilaren 27an argitaratuko dugu. Zorion-agurrak urtarrilaren 23a baino lehen ekarri edo bidali.

E-mail: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Posta helbidea: Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20170 Usurbil

**www.noaua.com**

**Albisteak edizio jarraituan**

**Zorion-agurren tarteak**

**Eztabaida foroak**

**Agenda**

**Zerbitzuak**

**Eguraldia**

**Aldizkaria, on line**

**Usurbildarrentzat eginiko webgunea**

**Zuen  
publizitatea  
hemen**

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com



# Lehiaketa

"Egizu lo" liburua eta diskoa  
muxu-truk eskuratu nahi al dituzu?  
Oso erraza da. Marrazki bat egin eta  
NOAUA!ra ekarri edo postaz bidali.

Partehartzaile guztien artean  
egingo dugu zozketa.

Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna:  
urtarrilak 28.



Bidali erantzuna e-mailez [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).  
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).



# EGIN TxOTx!! sagardotegi garaian



**Txobxetik sagardoa jarraitu asadiot!**

**AIALDE BERRI**

Urtarrilaren 13tik irekita!

Santutxenea, Tel.: 943 365 031 - Mobilak: 607 027 751



**LARRE-GAIN**  
**TOLARE SAGARDOTEGIA**

Urtarriletik apirilera txotx garaia  
(Asteleheneren itxita)

Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani  
Tel.: 943 55 58 46 - Mugik.: 616 287 867

**ASTIAZARAN**  
**SAGARDOTEGIA**  
**IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 9-an  
irekiko dugu  
tel.: 943 36 12 29

**ELUTXETA**  
**SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA**

Urte guztian irekita astelehena ezik.



Oztaran Baitara • URNETA (Gipuzkoa) • / 943 55 69 81



**SAIZAR**  
**Sagardotegia**

Kale Zahar Auzoa, 28  
20170 USURIL  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 362 228  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

**OTEGI**  
**Sagardotegia**

Urte guztian irekita Astelehena ezik



Solla onoa  
Baserria  
Zabaleta auzoa  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365 029

